



Pierre Broussain. Sa contribution aux études basques

Piarres Xarriton

EUSKALTZAINDIA

332 orrialde / 12 euro

Pierre Broussainen ekarpena euskal kulturari

Euskaltzaindiaren *Euskaltzainak* bilduman agertu da Piarres Xarritonek frantsesez egindako tesi hau. Aztergaia 1859an Barrandegian (Hazparneko komunan) jaiotako Pierre Broussainek euskal kulturari 1920 arte –orduan zendu zen– egin zion ekarpena, haren bizitzako zertzelada nagusienak biltzeaz batera. Euskal nazionalistatzat izan zuen Broussainek bere burua bizitza osoan. Euskaltzaindiko sortzaileetako bat dugu, eta euskara batua lortzeko egin zituen ahaleginen gaurkotasuna harrigarria da. Arturo Campioneekin izan zuen adiskidetasuna, Arana Goiriarekin izan zuen guntun trukaketa bereziki interesgarria dira tesian. |

euskara zela-eta izandako eztabaidak eta Azkuerekin izan zuen guntun trukaketa bereziki interesgarria dira tesian. |

“Paperik” gabekoek udalerrietan erroldatzeko dituzten trabak

Ararteko erakundeak 2006an emandako laguntzari esker egin ahal izan du José Zarauzek *Incidencia del padrón municipal en el ejercicio de los derechos de las personas extranjeras en situación irregular* izeneko ikerlana. Egoera irregularrean dauden atzerritarren eskubideak aztertu ditu, batik bat. Pertsona horiek gure hiri eta herrietan bizitzen ari dira, baina paradoxikoki, orain arteko legedia dela-eta ez dute lan-baimenik, ez egoitza-baimenik eta edozein unetan zigorra jasan dezakete. |

Padrón municipal

José Zarauz

ARARTEKO

308 orrialde



JURGI KINTANA GOIRIENA

«Pertsonaia osorik, jaio zenetik hil arte aztertzen saiatu naiz»

Nor genuen Sabino Arana Goiri?

Garai batean, Jesukristoren mailan jartzearaino goratu zuten bere jarraitzaileek. Gaur egun, aurkariek bortizki gaitzesten dute, are Hitlerrekin parekatzeraino. Pertsonaia ospetsua da, dudarik gabe. Euskal nazionalismoaren ideologoa, EAJren sortzailea, euskararen arauemailea, ikurrinaren asmatzailea, antiespainolista gogorra, abertzale sakrifikatua... Berebiziko eragina izan du gure historia hurbilean. Baina polemikoa ere bada. Ez al da Aranaz nahikoa idatzi? Beharrezkoa al zen zure lan hau?

Arana Goiriren bizitzaz idatzi diren obra aipagarri guztiak erdaraz egin dira. Euskaraz egon badaude hari buruzko zenbait ikerketa on, baina arlo jakinen ingurukoak: filologikoak, pentsamendu politikoaren eremukoak, edota euskalgintzari lotuak. Propioki Arana Goiriren bizitza osotasunean kontatzea falta zen. Mikel Atxagak egina du saio labur bat, eta Joseba Agirreazkuenagak ikerketa jakingarria egin du bere azken urteei buruz. Baina sintesi lana egiteke zegoen. Pertsonaia osorik, jaio zenetik hil arte aztertzea. Bere jarduera publikoa erakustea, baita arlo pribatua ere. Horixe saiatu naiz ni egiten.

Zein da bere arlorik esanguratsuena?

Ez da erraza bere ideologia laburbiltzea. Erljioa, arraza, euskara, foruak, historia... aski modu konplexuan landu eta uztartu zituen. Nolanahi ere, euskal populua subjektu politiko bihurtu zuen. Bere teoriak mugak eta gabeziak izan arren, inork baino argiago aldarrikatu zuen euskal nazioaren burujabe izateko eskubidea. Horixe da bere ekarpen nagusia.




MARISOL RAMIREZ / A.P.

Sabino Arana Goiri: heroi ala gaizkile?

Oso urte gutxian –38 baino ez zituen zendu zenean– Sabino Arana Goirik ideologia

berri bat, alderdi bat, jarraitzaile talde bat, kultur eredu bat eta nazio sinboliko bat eraiki zituen, Jurgi Kintana Goirienak *Sabino Arana Goiri Euzkadiren aita (1865-1903)* biografian jasotzen duenaren arabera. Bilbon sortutako historialariak azpimarratu du aztertzen den edozein pertsona zuzen baloratu-ko bada, bizi izan zen munduan kokatu beharra dagoela. Horrela ikusita, Arana Goiri ez zen zerutik jaitsitako salbatzailea izan, ezta infernutik irtendako piztia ere. Jainkoa, arraza, hizkuntza, foruak eta historia izan zituen gogoeta-gai bereziki. Fededun erabatekoa izan zen, katoliko integrista. Sabinorentzat, Euzkadiren independentziak helburu erlijioso goren bat ahalbidetuko zuen: euskal herritarren salbazioa.

egileari galdezka



Sabino Arana Goiri Euzkadiren aita

Jurgi Kintana Goiri
ELKAR

164 orrialde/
11,50 euro

Arrazari buruz zituen ideiak, esate baterako, garaiko Europan guztiz ohikoak ziren. Berarentzat herrialde guztiak jatorrizko biztanleenak ziren, berdin euskaldunak izan edo zuluak. Gizon idealista bezain intransigentea, hizkuntza batez ere arraza babesteko nahi zuen, ez hainbeste funtzio komunikatiborako, eta hortik euskal hizkuntzalariekin izan zituen talkak. ■